

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2020ko apirila

Aurkibidea

1. Aurreikuspen berriak
 2. Afiliazioa
 3. Langabezia erregistratua
 4. Inflazioa
 5. PMI konposatua
 6. Sentimendu ekonomikoa
 7. Hilabeteko laburpena
- Eranskina

1. Eragin handia izango du covid-19ak ekonomian.

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak BPGa 2020an %3,6 jaitziko dela aurreikusten du.

2. Moteltze esanguratsua Gizarte Segurantzako afiliazioaren igoeran.

Urte arteko tasa %0,7an kokatu da, baina -%0,1era jaisten da profesionalak ez diren zaintzaileen igoera kentzen bada.

3. Langabezia nabarmen handitu zen martxoan.

Hileko horretan otsailean eta iazko martxoan baino 10.000 langabe gehiago zeuden.

4. Inflazioa sei hamarren jaitsi zen otsailean

Petrolioaren eskariaren beherakadak eta herrialde ekoizle batzuen estrategiek azaltzen dute jaitsiera hori.

5. Koronabirusak ekonomia garatuen susperraldia bertan behera utzi du.

Euroguneko PMI konposatuak inoizko baliorik txikiena jaso du.

6. Euroguneko sentimendu ekonomikoak okerrera egin du martxoan.

Familien konfiantza bost puntu jaitsi da eta eremu negatiboan murgildu da.

7. Hilabeteko laburpena.

Covid-19aren hedapena aldagai makroekonomikoetara iritsi da.


Eragin handia izango du covid-19ak ekonomian

Osasun krisi larriaz gain, covid-19 birusak eragin handia izango du munduko ekonomian ere. Herrialde bat ere ez da jarduera ekonomikoak izango duen geldialditik at geratuko.

Testuinguru horretan, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak aurreikuspen ekonomikoak eguneratu ditu, oinarrian ziurgabetasuna duten hipotesi batzuk daudela. Oinarrizko hipotesian, alarma egoerak hilabete bat iraungo du eta, geroztik, 45-60 egun inguruko aldi batean neurri


partzial egongo dira, normaltasunera pixkanaka itzultzeko. Eszenategi horretan, EAEko ekonomia 2020an %3,6 uzurtuko dela aurreikusten da eta 2021ean, ordea, %2,6ko haziko. Beraz, pandemiak ekonomian izango duen eragin negatiboa aldi baterako bakarrik izatea eta pixkanaka susperraldia gertatzea espero da. Hala ere, erorikoaren eta ondorengo gorakadaren tamaina neurri sanitario eta ekonomikoen eraginkortasunaren araberakoa izango da.

BARNE PRODUKTU GORDINA Urte arteko aldakuntza tasa




BARNE PRODUKTU GORDINA 2020 -3,6

AZKEN KONTSUMOIA Urte arteko aldakuntza tasa




KAPITAL ERAKETA GORDINA Urte arteko aldakuntza tasa



INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



Eskariaren ikuspegitik, 2020an kontsumo pribatuak, kapital eraketa gordinak eta esportazioek beherakada handia ezagutuko dutela espero da. Barne eskarian haziko den osagai bakarra administrazio publikoen gastua izango da.


Eskaintzaren ikuspegitik, jarduera adar guztiek hazkundea kenduko diote balio erantsi gordinari, eta haren aldakuntza tasa $-3,4\%$ izango da.

Orobat, enplegua $1,7\%$ murriztuko da 2020an eta langabezia tasa $11,4\%$ iritsiko da.

Aurreikuspen hori betetzen bada, 2021ean aldagai guztiak 2020ko lehen hilabeteetan utzitako hazkunde bidera itzuliko dira.


ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA TASA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Moteltze esanguratsua Gizarte Segurantzako afiliazioaren igoeran

Gizarte Segurantzako afiliazioaren martxoko datuek aurreko bost urteetan zifrek markatu zuten egonkortasunarekiko haustura ekarri dute, eta urte arteko hazkundea %0,7raino murriztu da, gutxi gorabehera urtarrileko eta otsaileko balioak baino puntu bat beherago. Gainera, kopuruak profesionalak ez diren zaintzailerik gabe agertzen badira, urtetik urterako aldakuntza apur bat negatiboa da (-% 0,1). Hau da, azken hamabi hilabeteetan afiliazioan gertatu den igoera guztia kolek-

tibo horri bakarrik zor zaio, Espainiako gobernuak Gizarte Segurantzari bere kuotak ordaintzeko hartutako erabakiak mesede egin baitio. Generoaren araberako analisiak adierazten du bietan erritmoen moteltze garrantzitsua gertatu dela. Esate baterako, emakumeen kasuan, urte arteko hazkunde tasa %1,9koa izan da (%0,5 zaintzailerik gabe); gizonen kasuan, berriz, -% 0,3koa (-% 0,6 zaintzaileak deskontatuz gero).


GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

MARTXOKO AFILIAZIOA


+%



GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO

EMAKUMEAK


Urte arteko aldakuntza tasa



GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO


GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA INDUSTRIAN


Urte arteko aldakuntza tasa



Martxoan jarduerak izan zuen galgak kalte ekarri zion ekoizpen sektore guztiei. Industriak, lehenetik ere, bazuen langileen kopurua murrizteko joera, eta hilabete horretan joera hori areagotu egin da, -% 1,3ko balioa jaso arte. Eraikuntza, berriz, oraindik tasa positibotan dago (%0,2), baina aurreko kopuruetatik urrun gelditu da. Bestalde,

AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



zerbitzuek %2,5eko tasa eskuratu zuten otsailean eta %1,4 bakarrik martxoan. Are gehiago, tasa hori %0,3ra mugatzen da, zaintzaileen eragina kontuan hartzen ez bada. Afiliatuen kopurua nabarmen handitzen diren jarduera adarrak administrazio publikoari lotutakoak dira.

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK.

	2019ko martxoa	2020ko martxoa	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	960.275	967.389	7.113
Industria manufakturagileak	176.314	174.072	-2.242
Merkataritza	137.300	135.597	-1.702
Osasun arloko jarduerak	94.514	105.385	10.871
Hezkuntza	75.118	76.005	887
Ostalaritza	66.662	65.932	-730
Administrazio jarduerak	65.304	64.316	-988
Eraikuntza	56.579	56.676	97
Lanbide jarduerak	56.513	57.309	796
Administrazio publikoa	48.328	49.488	1.160
Garraioa	41.959	42.233	274
Etxeko langileak	30.317	29.581	-735
Bestelako zerbitzuak	28.592	28.035	-557
Informazioa eta komunikazioa	22.978	23.277	299
Finantza jarduerak	18.106	17.761	-345
Jarduera artistikoak	16.700	16.929	229
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	12.539	12.275	-264
Or horniketa	5.980	6.198	219
Higiezin jarduerak	4.035	4.182	147
Energia horniketa	1.822	1.522	-300
Erauzketa industriak	557	556	-1
Lurraldez kanpoko erakundeak	59	58	-1

Iturria: Lana, Migrazioak eta Gizarte Segurantza Ministerioa.





LANGABEZIA ERREGISTRATUA


Langabezia nabarmen handitu zen martxoan

Lanbideko bulegoek erregistra dituzten azken datuen arabera, langabeen kopuruak gora egin zuen martxoan, eta hori ez zen gertatzen 2013. urtetik, hots, azken atzeralditik. Aurtengo martxoko urte arteko hazkunde tasa %8,7 izan da, koronabirusaren pandemiak eragin duen inpaktu ekonomikoak kaltetuta, osasun larrialdia eta konfinamendu -neurriak ezarri ondoren. Gorakada


hori, neurri handi batean, martxoaren bigarren hamabostaldian gertatu zen, neurri horiek enpleguan beheranzko eragina sortzen hasi zirenean. Guztira, martxoan 128.213 langabe erregistratu ziren enplegu bulegoetan, aurreko hilean eta aurreko urteko hilabete berean erregistratutakoak baino 10.000 pertsona luze gehiago.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA
Urte arteko aldakuntza tasa


LANGABEZIA ERREGISTRATUA.
MARTXOA
% 8,7



LANGABEZIA ERREGISTRATUA. EMAKUMEAK
Urte arteko aldakuntza tasa




LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK
Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA . GAZTEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020

Langabeziaren gorakadak kolektibo nagusi guztiei eragin die. Hala, duela urtebete baino 6.700 gizon inguru eta ia 3.600 emakume gehiago daude langabezian. Gazteen artean ere gorakada esanguratsua izan da. Ekoizpen sektoreen arabera, zerbitzuak izan dira langabeziaren gorakada handiena izan dutenak 2019ko martxoarekin alderatuta, % 10,7, eta 8.394 langabe gehiago dituzte. Gorakada horri oso gertutik jarraitu zion industriaren sekto-

LANGABEZIA . ATZERRITARRAK

Urte arteko aldakuntza tasa



2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020

reak: urte arteko aldakuntza tasa %10,4 izan zen, eta ia 1.500 pertsona gehiago zeuden lana bilatzen. Azkenik, eraikuntzak igoera apalagoa izan zuten, %6,1era eta 500 pertsona baino gehixeagora mugatzen baita.

Atzerritarrek hilabeteetan lan munduan arrakastaz sartzea lortu duten arren, martxoan ez ziren salbuespena izan eta kolektibo horren langabeziak ere gorakada handia izan zuten (% 11,2).

LANGABEAK


	2019ko martxoa	2020ko martxoa	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	117.952	128.213	10.261
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	19.439	21.448	2.009
Bizkaia	67.295	72.668	5.373
Gipuzkoa	31.218	34.097	2.879
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	50.474	57.178	6.704
Emakumeak	67.478	71.035	3.557
25 urtetik beherakoak	8.292	9.589	1.297
25 urte baino gehiago dutenak	109.660	118.624	8.964
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	2.668	2.694	26
Industria	13.914	15.362	1.448
Eraikuntza	8.284	8.793	509
Zerbitzuak	78.415	86.809	8.394
Lehenago lan egin dutenak	103.281	113.658	10.377
Lehenago lan egin ez dutenak	14.671	14.555	-116
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarrak	18.636	20.714	2.078

Iturria: SEPE.

Inflazioa sei hamarren jaitsi zen otsailean

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Erregaien prezioaren jaitsierak, petrolio gordinaren prezioaren bilakaerak eragin baitzuen, otsaileko KPIa %0,8an egotea eragin zuen, aurreko hilabetean erregistratutako tasa baino sei hamarren beherago. Horrela, dagoeneko hiru hilabete irauten zuen goranzko joera eten zen, iraileko eta urriko hilabeteetan erregistrorik baxuenetara erori ondoren. Halaber, martxoko KPIaren aurrerapenak beste jaitsiera bat iragartzen du.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2018	2019	2020ko otsaila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	1,6	1,0	0,8	0,8
Azpiko inflazioa (%81,2)	0,9	1,0	1,4	1,1
- Elikagai landuak (%13,9)	0,9	0,6	1,9	0,3
- Industria ondasunak (%24,4)	-0,1	0,3	0,6	0,1
- Zerbitzuak (%42,9)	1,5	1,6	1,6	0,7
Hondar inflazioa (%18,8)	4,6	0,8	-1,7	-0,3
- Landu gabeko janariak (%7,8)	2,9	1,3	1,9	0,1
- Energia (%11,0)	5,9	0,4	-4,1	0,4


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTATAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



Erregaien prezioaren beherakada horren atzean, nagusiki, koronabirusaren krisia egon zen. Izan ere, birusa behin Txinatik haratago zabaldu zenean, petrolioaren eskaria nabarmen jaitsi zen eta bere prezioa martxoan zehar upel bakoitzeko 25 dolarren azpitik kokatu. Aurrekoaz gain, eskaintza handitzeko politika hartu du Saudi Arabiak. Horregatik guztiagatik, garraioaren taldea izan zen, bi puntu baino gehiagoko

jaitsierarekin (%1,6), indize orokorrak balio txikiagoak erregistratzen gehien lagundu zuena. Era berean, berokuntzarako gasolioaren kostu txikiagoak eraginda, etxebizitzaren taldeak balio negatibo oso nabarmenak (-%3,7) erregistratzen jarraitu zuen. Azkenik, komunikazioen taldeak ere balio negatiboak jaso zituen (-%0,6), telefoniaren eta faxaren prezioak gutxiago igo zirelako.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte ateko aldakuntza tasa. 2020ko otsaila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	0,8	0,7	1,4
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,1	2,0	1,8
Edari alkoholdunak eta tabakoa	0,4	0,6	3,3
Jantziak eta oinetakoak	1,2	1,1	0,9
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-3,7	-3,7	0,2
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,9	0,3	0,7
Osasuna	0,8	0,4	0,7
Garraioa	1,6	1,8	1,8
Komunikazioak	-0,6	-0,7	-1,1
Aisia eta kultura	0,4	0,4	0,4
Hezkuntza	1,4	0,9	0,4
Jatetxeak eta hotelak	1,9	2,2	2,0
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,2	1,4	1,7

Iturria: INE eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.



ENPRESARIEN KONFIANTZA

Koronabirusak ekonomia garatuen susperraldia bertan behera utzi du


Martxoko PMI indize konposatua Eurogunerako argitaratzeak aurreko hilabeteetan eremu horretako ekonomiak erakusten zuen susperraldi leunari amaiera eman dio. Hain zuzen ere, hileko horri esleitutako balioa (31,4) serie historiko osoan, 1998an hasi baitzen, aurkitzen den baxuena da. 2009ko Atzeraldi Handian ezagututako edozein erregistro baino txikiagoa ere bada.

Mesfidantza manufakturretan zein zerbitzuetan nabari da, baina bereziki azken sektore horretan gauzatu da beherakada nabarmenena. Kontsumora bideratutako jarduerak, hala nola bidaiak, turismoa eta ostalaritza, dira irudi hondatuena eskaintzen dutenak. Aurrekoaz gain, enplegu adierazleek ere okerrera egiten dute.


PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA

2020KO MARTXOA


31,4




MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA




ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




PMI indizeetatik ondorioztatzen den ekonomiaren okertzea ez da Europako herrialdeen artean bakarrik gertatzen, baizik eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, gainerako ekonomia garatuetara ere hedatzen da. Adibidez, AEBetan adierazlea 49,6tik 40,5era igaro da, atzeraldi esanguratsua aurreikusten duen egoera batera, alegia. Japonian beherakada hamaika punturaino iritsi da eta 35,8an dago. Erresuma Batuak hobekuntza nabarmena izan zuen urtarrilean eta otsailean (53 puntuetatik gora zegoen), baina martxoan behera egin du (37,1 puntu). Aipatutako herrialde guztietan, eta baita Frantzian eta Alemanian ere, zerbitzuak manufakturak baino nabarmen gehiago okertu dira.


PMI KONPOSATUA. JAPONIA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



Iturria: Markit.




EKONOMIA SENTIMENDUA EUROPAN

Euroguneko sentimendu ekonomikoak okerrera egin du martxoan

SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROGUNEA


MARTXOKO DATUA
94,5




Europako herrialdeen sentipen ekonomikoak nabarmen egin zuen okerrera martxoan, koronabirusa hedatu ahala, eta haren hedapena saihesteko neurriak hartzen ziren heinean. Hala, Euroguneari dagokion adierazlea ia bederatzi puntu jaitsi zen, 94,5ean kokatu arte, bere batez besteko historikoaren azpitik. Gainera, kontuan hartu behar da erantzun gehienak otsailaren amaieran eta martxoaren lehen egunetan jaso zirela; beraz, litekeena da apirilko datua martxokoa baino nabarmen okerragoa izatea.

Narriadura orokorra da, baina industriak eta zerbitzuek bizi duten une txarra nabarmentzekoa da, aurreko balioarekin alderatuta hainbat puntu jaitsi baitira. Era berean, kontsumitzailearen konfiantzak eta txikizkako merkataritzak aurrekoak baino askoz balio txikiagoak jaso dituzte. Eraikuntzak bakarrik lortzen du batez bestekoa baino balio nabarmen handiago bat jasotzea, eta otsaileko datuaren aldean sektorearen moteltzea ez da bi puntuetatik pasatzen.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA



SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




Sentimendu ekonomikoaren beherakada orokorra da, baina aldaketa oso esanguratsuak nabari dira herrialde batzuen eta besteen artean, agian sentimenduari baino gehiago informazioa bildu den uneari erantzuten diotenak. Esate baterako, Alemanian indizeak behera egin du otsailaren 101,8tik martxoaren 92,0ra. Hala ere, Frantzian, otsailaren 105,5aren ondoren 100,6ko balioa izan zuen, eta horrek ez du oraindik ezkortasun egoerarik adierazten. Lehen herrialdean, zerbitzuek galdu egin dute aurreko hilabeteetan erakusten zuten irudi sendoa, eta oso modu esanguratsuan erori dira; aldi berean,


industriak, jada posizio zailean baitzegoen, beherakada areagotu du. Frantziaren kasuan, berriz, industrian ia ez da okertzerik hauteman, eta zerbitzuek ez dute galtzen herrialde germaniarrean bezainbeste.

Italiaren kasua Aalemaniakoa baino are nabarmenagoa da, 101,3tik 83,7ra jaitsi baita. Herrialde horretan, osagai guztiek okerrera egin dute nabarmen, aurreko hilabeteekin alderatuta. Erresuma Batuan, azkenik, urtearen hasieratik, behin Europar Batasuna uzteko modua adostuta, nabari zen susperraldiari galga jarri diote.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA




SENTIMENDU EKONOMIKOA. ERRESUMA BATUA



Azkenik, Espainian okerragotzea ez da, oraingoz, oso esanguratsua izan, nahiz eta dagoeneko 99,3an dagoen, hau da, bere batez besteko balio historikoaren azpitik. Osagai guztiek okerrera egiten dute, baina azpimarratzekoa da zerbitzuen indizearen beherakada, eremu negatiboan dagoen bakarra baita. Aitzitik, ez industriak ez txikizkako merkataritzak ez dute oraindik hilaren bigarren erdiko konfinamenduaren eragina jaso, eta eraikuntzak irudi positiboa eskaintzen du.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA



Iturria: Europar Batzordea.





HILABETEKO LABURPENA

Covid-19aren hedapena aldagai makroekonomikoetara iritsi da

Koronabirusa makroekonomiara iritsi da dagoeneko. Adibiderik argigarriena Markit enpresak argitaratzen duen PMI konposatuena da, bere historiako beherakadarik handiena ezagutu baitute. Zehatz-mehatz adierazita, Euroguneko balioa otsailean 51,6 puntu izatetik, jardueraren susperraldi arina iradokitzen baitzuen, martxoan 31,4 puntu izatera igaro da, hau da, hiruhileko batetik bestera %2,0ko beherakadatzat jo daitekeena. **Eragina gehiago nabaritzen da zerbitzuen sektorean manufakturetan baino.** Hain zuzen ere, enpresek kontsumoari lotutako jarduerak okerrera egin dutela jakinarazi dute, hala nola bidaiak, turismoak eta jatetxeak. Ondorioz, zerbitzuen PMI indizea 52,6ko balio sendo batetik 28,4 izatera igaro da hilabete bakar batean. Manufakturen kasuan, jaitsiera 49,2tik 44,8ra doa.

Koronabirusaren eraginak ez dira Europako eremura mugatzen, **herrialde garrantzitsu guztietara zabaltzen direlako.** Esate baterako, Japonian PMI indizea 35,8an kokatu da. Bestalde, AEBetan indizea 40,5ean kokatu da, otsailekoa baino bederatzi puntu beherago, 39,1ean zerbitzuetan eta 47,6an manufakturetan. Herrialde honetan, ez da 2009ko intentsitatera iritsi, 31 puntuetatik behera jaitsi zenean, baina gogoratu behar da epidemia geroago iritsi dela herrialde horretara Europara baino, eta, beraz, apirilean okerrera egin dezakeela. Hala eta guztiz ere, **enpleguan izan duen eragina nabarmena da:** asteko langabezia sorospena jasotzeko eskaerak 200.000 izatetik 3.000.000 baino gehiago izatera igaro dira, aurrekaririk gabeko zifra bat delarik -orain arte erregistratutako kopuru maximoa ez zen 700.000ra iritsi-.

Ezkortasuna nagusi den arren, **berri ona Txinatik dator,** pandemiari aurre egiteko neurri drastikoak hartu zituen lehen herrialdetik eta, orobat, birusaren jatorria den herrialdetik. Hain zuzen ere, birusaren hedapena kontrolatu ondoren, manufakturen PMI martxoan ia osorik berreskuratu du otsailean galdutako gutzia, eta 40,3 izatetik 50,1 izatera igaro da, hedapen ahula adierazten duen maila batera. Herrialde horretan, ondorio ekonomikoak hilabete batean gainditu direla dirudi.

Bitartean, aurreikuspen ekonomikoak egiten dituzten erakundeak beren estimazioak argitaratzen joan dira. Horien artean, **ELGEn eta NDFren kalkuluak nabarmendu dira: munduko BPGk, hurrenez hurren, bi eta hiru puntuko jaitsiera pairatuko duela kalkulatu dute, konfinatuta eta jarduera etenda dagoen hilabete bakoitzeko.** Fedeatik, ospe handiko hainbat ikertzailek adierazi dute Espainiarentzako eragina, oinarritzko agertokian, BPGren sei puntura irits daitekeela neurririk hartzen ez bada, eta, aldi berean, neurriekin inpaktua 3,5 puntu murriztuko litzatekeela.

Testuinguru hori guztia kontuan hartuta, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2020rako aurreikuspenak eguneratu ditu, berrogeialdia hilabete batez luzatuko dela eta garatutako ekonomia nagusiek, bereziki Espainiakoak, erakunde nagusiak kalkulatzeko ari diren moduan eboluzionatuko dela ontzat emanaz. Emaizta gisa, **BPGa aurten %3,6 murriztuko dela aurreikusten da,** eta eragin handia izango duela bai kontsumo pribatuan, bai kapitalaren eraketa gordinen, bai esportazioetan. Enpleguak atzera egingo du eta langabezia tasa %11,4ra igoko da. Hala ere, atzeraldi hori aldi baterakoa izango dela ulertzen da eta 2021ean BPGa % 2,6 igotzea lortuko dela.

ESTADÍSTICA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT
Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2018		2019		
			IV	I	II	III	IV
BPG	3,0	2,2	2,6	2,2	2,2	2,1	2,2
Barneko azken kontsumoa	2,5	1,9	2,2	2,1	1,9	1,9	1,7
Familien kontsumoa	2,7	1,9	2,5	2,2	1,9	1,8	1,5
Administrazioaren kontsumoa	1,6	2,1	1,3	1,9	2,1	2,2	2,2
Kapital eraketa gordina	4,7	2,8	4,6	4,0	2,5	2,2	2,4
Barne eskaria	3,0	2,1	2,8	2,6	2,0	2,0	1,9
Esportazioak	3,0	0,4	0,7	-1,4	2,8	-0,9	1,3
Inportazioak	3,0	0,4	1,1	-0,8	2,6	-0,9	0,9
Lehen arloa	7,9	0,6	15,9	1,7	-0,1	0,2	0,4
Industria eta energia	2,5	1,1	0,3	0,4	1,0	0,8	2,3
Eraikuntza	4,1	3,1	6,2	4,6	3,2	2,9	1,9
Zerbitzuak	2,7	2,5	2,7	2,6	2,5	2,5	2,2
Balio erantsi gordina	2,8	2,2	2,4	2,2	2,2	2,1	2,2
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	4,9	2,1	3,8	2,2	2,1	1,8	2,3
Enplegua	2,6	1,6	2,3	1,8	1,7	1,6	1,3

MARTXOKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA
Urte arteko aldakuntza tasa

	2020				2020	2021
	I	II	III	IV		
BPG	0,1	-6,2	-4,5	-3,9	-3,6	2,6
Barneko azken kontsumoa	0,7	-4,6	-3,2	-2,8	-2,5	2,4
Familien kontsumoa	-0,3	-8,1	-4,9	-4,3	-4,4	3,5
Administrazioaren kontsumoa	4,4	8,4	3,1	2,6	4,6	-1,2
Kapital eraketa gordina	0,5	-7,6	-4,8	-4,5	-4,1	3,2
Barne eskariaren ekarpena	0,7	-5,5	-3,8	-3,3	-3,0	2,7
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,6	-0,8	-0,7	-0,6	-0,6	-0,1
Lehen arloa	7,8	-9,6	-6,7	-9,9	-4,6	5,9
Industria	-1,5	-6,8	-4,0	-3,5	-3,9	3,0
Eraikuntza	0,6	-4,6	-3,2	-2,9	-2,5	1,7
Zerbitzuak	0,4	-5,8	-4,2	-3,6	-3,3	2,2
Balio erantsi gordina	0,1	-6,0	-4,1	-3,6	-3,4	2,4
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	0,4	-7,8	-7,5	-6,6	-5,4	3,8
Enplegua	-0,3	-4,0	-2,2	-0,4	-1,7	1,6

ESTADÍSTICA ERANSKINA.ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE
Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2018		2019		
			IV	I	II	III	IV
BPG	2,4	2,0	2,1	2,2	2,0	1,9	1,8
Kontsumo pribatua	1,8	1,1	1,2	1,3	0,7	1,3	1,2
Kontsumo publikoa	1,9	2,3	2,2	2,3	2,3	2,2	2,4
Kapital finkoaren eraketa gordina	5,3	1,8	3,5	4,8	0,5	1,4	0,6
- Aktibo finko materialak	6,2	1,7	4,0	5,8	0,2	1,1	-0,1
- Eraikuntzan	6,6	0,8	5,7	4,0	1,7	0,0	-2,2
- Ekipamendu ondasunetan	5,7	2,6	1,4	8,3	-2,5	2,4	2,6
- Jabetza intelektualaren produktuak	1,1	2,2	1,0	0,4	1,9	2,6	4,0
Nazio eskaria (ekarpena)	2,6	1,5	2,0	2,1	1,1	1,5	1,3
Esportazioak	2,2	2,6	0,1	0,8	2,6	3,6	3,3
Inportazioak	3,3	1,2	-0,3	0,4	-0,2	2,7	2,1

BPGAREN AURREIKUSPENAK .BESTE ERAKUNDE BATZUK
Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020		2019	2020
AFI	1,6	1,7	IEE	1,3	1,2
Axesor	1,7	1,7	Intermoney	1,3	1,7
BBVA	1,6	1,9	Repsol	1,4	1,4
Bankia	1,7	1,6	Santander	1,3	1,6
CaixaBank	1,5	1,5	Solchaga Recio & asociados	1,3	1,6
Cámara de Comercio España	1,5	1,6	Consenso (media)	1,5	1,6
Cemex	1,4	1,7	Gobierno (02-2020)	1,6	1,5
CEEM-URJC	1,3	1,7	Banco España (12-2019)	1,7	1,6
CEPREDE-UAM	1,7	1,8	Comisión Europea (02-2020)	1,6	1,5
CEOE	1,5	1,4	FMI (01-2020)	1,6	—
FUNCAS	1,4	1,6	OCDE (11-2019)	1,6	1,6
ICAE-UCM	1,4	1,7	Consensus Forecast (03-2020)	1,5	1,6

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

ESTADÍSTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2018		2019		
			IV	I	II	III	IV
AEB	2,9	2,3	2,5	2,7	2,3	2,1	2,3
Txina	6,6	6,1	6,4	6,4	6,2	6,0	6,0
Japonia	0,3	0,7	-0,2	0,8	0,9	1,7	-0,7
Kanada	2,0	1,6	1,8	1,5	2,0	1,6	1,5
Europar Batasuna	2,0	1,5	1,5	1,7	1,4	1,5	1,2
Eurogunea	1,9	1,2	1,2	1,4	1,2	1,3	1,0
Alemania	1,5	0,6	0,6	1,0	0,3	0,6	0,5
Frantzia	1,7	1,3	1,2	1,3	1,5	1,5	0,9
Erresuma Batua	1,3	1,4	1,4	2,0	1,3	1,2	1,1
Italia	0,8	0,3	0,0	0,2	0,4	0,5	0,1
Herbehereak	2,6	1,7	2,1	1,9	1,6	1,8	1,6

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2020KO MARTXOA Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2020	2021	2020	2021	2020	2021
AEB	1,6	2,0	1,8	2,1	3,7	3,7
Txina	-0,7	1,1	0,4	0,5	2,4	2,4
Japonia	1,2	1,9	1,7	2,0	5,8	5,8
Kanada	0,9	1,4	1,3	1,5	—	—
Europar Batasuna	0,6	1,3	1,1	1,4	7,5	7,4
Eurogunea	0,5	1,2	1,3	1,5	5,1	5,1
Alemania	0,8	1,2	1,2	1,3	8,2	8,1
Frantzia	0,8	1,3	1,5	1,8	4,0	4,1
Erresuma Batua	-0,8	0,8	0,5	1,0	10,1	10,0
Italia	1,5	1,6	1,0	1,4	—	—
Herbehereak	1,2	1,4	1,5	1,7	—	—

Iturria: Consensus Forecast.